

Bertako nekazariak beren produktuak salduko dituzte larunbat honetan Altzan



Larunbatean, urriaren 16an, 'Bertako Produktuaren Eguna' izango da Donostiako Altza auzoan. Egun horretan, bertako produktuen azoka izango da, eta Altzako 'Urban Lur' proiektuko baratzeetako nekazari ekintzaileek hartuko dute parte; horiek, hiriko beste ekoizle batzuekin batera, beren ustategietan lantzen dituzten barazkiak aterako dituzte salmentara, baita bertan ekoizturiko beste gai batzuk ere. Salmenta postuak Harria Parkeko pergolaren azpian jarriko dira.

Ekonomia Bultzatzeko zinegotzi Marisol Garmendiak hau adierazi zuen: 'azoka hau bertako ekoizleek beraiek eskatuta sortu da, espazio bat behar baitzuten beren produktuak elkarrekin batera erakutsi eta saltzeko Altza auzoan. Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak, Donostia Sustapenaren Guztiona Klusterraren bidez, estrategia oso bat du bertako produktuari laguntzeko; izan ere, ingurumenarekiko jarrera arduratsua da eta gure enpresen eta negozioen biziraupeari babesa ematen dio, hau da, gure ekonomiari eta gure lanpostuei. Azoka honen bidez, ekoizleak eta gertuko bezeroak harremanetan jartzen ditugu'.



Bertako Produktuaren Eguna Altzan egitea Guztiona Nekazaritzako Elikagaien Klusterraren (Donostia Sustapena) ekimena da. Kluster honek 2019an Donostia Urban Lur proiektua jarri zuen abian, nekazaritzako sektorean ekintzailatza sustatzeko helburuarekin. Nekazaritzako produktuak ekoizten oinarritzen den enpresa proiektu bati ekin nahi dioten herritarrei lursaila eta azpiegitura egokiak eskaini zitzaizkien baratze lanetarako, horiek lantzeko tresnak, prestakuntza teknikoa nekazaritzan eta negozioen arloan eta produktuak merkaturatzeko aholkularitza eta laguntza. Une honetan, jardunean dauden sei ustategik hartzen dute parte programa honetan.

Lan ildoetako bat Urban Lur proiektuko baratzeetan sorturiko produktuak merkaturatzearen ingurukoa zen, produktu horiek zuzenean bezeroei salduz azoken bidez. Modu horretan, gertuko elikagaiak eta zuzeneko salmenta aldarrikatzen dira kontsumo aukera logikoena eta seguruena bezala. Azoka hau urriaren 16an, larunbatean, egingo da, 9etatik 14etara bitartean, Donostiako Altza auzoko Harria Parkeko pergolan. 10 ekoizle hartuko dute parte, eta beren barazkiak, gaztak, marmeladak, garagardoa eta abar merkaturatuko dituzte, trikitixak giroturiko jardunaldian.



Hiri berri zailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus